

# Bittor Kapanaga: Euskal Sokratesaren istorioa

Jon Goikouria

ABENDUAREN 3an eta Euskaren Egunarekin kointzidituz, Gontzal Mendibil arratiarrak Bittor Kapanaga mintzalari, ikertzaile, filosofo, psikologo eta profetari buruzko *Bittor eta Biok* liburua eta 18. disko pertsonalena aurkeztu zituen Bilboko Bidebarrieta liburutegian eta Durangoko Azokan. Obraren helburua "Bittorren izena lau haizetara zabaltzea dugu, solasaldi formatuko liburuan". Solasaldi horiek Bittor bera eta Gontzalek ospitalean izandakoak dira.

**—Zelan doaz Bittor eta Biok-  
aurkezpena?**

—Oso esperientzia polita izaten ari da. Aste honetan eta Euskaren Egunarekin kointzidituz, 45 urte bete ditu *Bagare* kantuak. Xabier Kintana eta Juan Luis Goikoetxea lagun eta euskaltzainak eta Juan Manuel Etxebarria Bilbon izan ziren eta oso ondo pasa genuen batera. Niri dagokidenez, beari buruzko kantua bota nuen. Durangon liburua eta diskoa aurkeztzen ibili nintzen, eta orain hainbat herrietatik nabil: Bilbo, Zaldibar, Aramaio, Dima, Gernika, Portugalete, Lazkao...

**—Gorbeiaiko Haizea liburuan Bittorrek ere presentzia izan zuen.**

—Baita. Garai hartan, nire aita hilberri zegoen, eta euskaldunok askotan gure sentipenak adierazteko arazoak ditugunez, liburu hau idatzi nuen, bizirik zegoen garaian agian berarekin ez nuelako behar bezain beste hitz egin ezta besarkatu ere. Horrexegatik, *Gorbeiaiko Haizea* kaleratu nuen, berarekin hitz egiten egongo banintz bezalako obra. Obra hartan Bittor aipatu arren, bere presentzia ez da Bittor eta Biok bezain pisutsua izan.

**—Nolakoa da Bittorren koadra?**

—Bittorren ospea *Bagare* kanta idazteagatik dator. Gainera, *Erro eta Gara* liburua idazteaz gain *Anaitasuna*, *Zeruko Argian*, *Jakin*, *Argian* edota *Egunkarian* idatzi ohi zuen. Baina ezer izatekotan, Bittor mintzalari aparta zen, esatari aparta. Euskal Sokratesa bezala ezaguna izan zen askorentzat.


**—Zer zioen euskarari buruz?**

—Irla bat ez zela adierazi ohi zuen. Garai bateko Grezia eta Erroma garaiko hizkuntza zela aipatzen zuen esatariak. Bere ustean, euskara Europa zabalean hitz egiten omen zen, baina atzera egin behar izan zuen hizkuntza izan zela. Gaur gaztelania, frantsesa, portugesa edo katalanarekin gertatzen den bezala, garai batean, duela 10 edo 15.000 urte Europan bazegoela hizkuntza prototipo bat, eta euskara hizkuntza horren barne zegoela. Europa guztian ehunka toponimo agertzen dira, euskararekin antzekotasun izugarria dituztenak. Bittorren arabera, bazegoen sistema matriarkal bat, pentsaera eredu bakar bat, eta lurretik ateratzen zirela fonema horiek.

**—Bittorren aurkezpen egokien disko lehen abestian dugu.**

—*Bizitzen Ikastea* izeneko. Gizon oso apala eta umila zen eta izateari edukitzeari baino garrantzi gehiago ematen zion. Gizakiok izaeraz ez dugula aldatzen adierazi ohi zuen: jaitzen garen lehenengo momentuan horrelaxe izango gara bizitzan zehar, ondoren hoberago edo txarrerago joan arren.

**—Komunikatzeaz gain, euska-**



Gontzal Mendibilek *Bittor eta biok* lana aurkeztu zuen euskararen egunean

**raren bidez bizitza azaldu daitekeela zioen Bittorrek ere.**

—William Shakespearek *To be or not to be* esaten zuen era berean, Bittorren esanetan sei letretan adierazi daiteke bizitzaren norabidea: IZ - IN - IL. IZ fonemantik IZadia, IZatasuna, IZaera... bezalako hitzak datoz. IN 'Egin'-etik

dator, eta azkena IL, hil. Arratiako eta Arabako euskara zaharretarikoa zen Bittorrentzat, eta Arratian, IZINIL 'Ezin Hil' bezala erabiltzen dugu, 'Hilezkor' hitzaren sinonimoa. Bittorrentzat natura ere horixe da: gauza hilezkorra.

**—Gizon bakarra eta izaera anizteta.**  
—Gizon berezia zen, heterodoxoa, pentsaera librekoa. Euskararen esparruan, hizkuntzaren errotako ikerketan zebilelako famatua zen Bittor. Filosofo, pentsalari eta psikologoa ere bazen. Jon Lopategiren ustez, profeta hutsa zen Bittor. Igor Elorzak zioen Bittor

aholkularia zela eta Joseba Sarrionandiak azitia.

**—Bittor eta Biok izenburu oso deskriptiboa dugu.**

—Bai, noski. Bion arteko elkarriketa formatuko liburua da. 2011ko uztailean zen eta ospitalean nengoen Bittorrek, bere azken amasetan. Bertan hasten da azken lan honen kontaketa. Elkarriketa formatuko liburua dugu, eta bertan hainbat gai jorratzen ditugu: gure istorioa, bere filosofia eta pentsaera, politika, euskarari buruzko ikerketa-lana... Obraren helburu nagusia bere izena eta lana munduari erakustea izan da.



**“Elkarrizketa formatua duen liburu honek Bittorren izena eta lana munduari erakustea du helburu”**

